

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

**Landalur eta hirilur Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kontribuzio errolda. 2020ko urtea.
(Espedientea: 2020/1/S777)**

Arabako Foru Aldundiak 2020 urteko Laudioko landalur eta hirilur Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kontribuzio errolda, onartu du.

Alkate-udalburuak, 2020ko ekainaren 1 eguneko 1049 zenbakia duen ebazpenaz, zerrenda hori jendaurrean erakutsi onartu du, ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute herriko etxeko -udaletxeko- Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuko bulegoan (Herriko Plaza - bigarren solairuan) 9:00/14:00 ordutegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustek esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.

Aipatu den alkate-udalburuko ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsioa jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertzeko errekurtsioak alkate-udalburuari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2020ko urriaren 16 egunetik 2020ko abenduaren 16egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden erreziboak 2020ko azaroaren 16 egunean kobratuko dira.

Zergaren ordainketa euren banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank, Laboral Kutxa eta Nafarroako Caja Rural bulegoen bitartez egingo da, kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutzak etxera bidalitako ordaindu beharreko erreziboa aurkeztuta. Erreziborik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, erreziboaren ale bikoiztua eskatu herriko etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), Herriko Plaza - behea ezkerrean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren erreziboak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Laudio, 2020ko ekainaren 1a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE